

# KONTZERTUAK SOINUENEAN

## Udako kontzertua

2013ko abuztuaren 24an - 18:30tan

**Gurutzeko  
frontoian**

### ALKARKIDE TXARANGA



Alkarkide Txarangaren jatorria Pasai Antxoko Alkartasuna dantza taldean dago. Izan ere, Alkartasunako partaide ohiak biltzetik sortu zen Alkarkide Txaranga. Hasieran, Iparraldeko ikastolak biltzen dituen Seas-karen aldeko afariak girotzera soinu-jole bat eta atabalari bat joaten ziren. Denborak aurrera egin ahala, pixkanaka, soinulari gehiago batzen joan ziren gaur egungo txaranga osatu arte.

Txaranga honek bere ibilbidean zehar izen ezberdinak izan ditu. Eman zitzaion lehenengo izena *Lagunak* izena izan zen, baina ekitaldiak ugaritu ahala izena aldatzea egoki ikusi zen.

Partaideen jatorria kontuan hartuz oraingo izena jartzea erabaki zen.

Txaranga dantza talde bateko partaide izandakoek sortua izanik, errepertorioa Euskal Herria osatzen duten eskualdeetatik bildutako doinuek osatzen dute. Hala ere, tartean bestelako musika ere jotzen dute, beti ere festa giroko musika: Raimundo Sarriegik bere garaian konposatutako Kaldereroen Konpartsarako musika eta bazkari eta afariak alaitzeko deitzen dietenez beraien errepertorioan sartu dituzte horrelako ekintzetan kantatzen diren abesti herrikoiak ere.

#### EGITARUA:

01. Xamurra
02. Mutil dantza
03. Lantz
04. Antxoriz
05. Ttun-ttun
06. Trintxerpe
07. Bartolo
08. Bralea
09. La bota
10. Urdiain
11. Pilindros (Tafallako jota)
12. Gaztelugatxe

Alkarkide Txarangaren ekitaldiak erromerierekin eta euskal dantzekin edo euskararekin berarekin lotuta dauden ekintzekin bat eginda ageri dira.

Udako kontzertua SOINUENEA - Herri Musikaren Txokoan

#### AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Afaria Gurutze auzoko frontoian izango da. Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita.

Prezioa (afaria): 18 euro.



kontzertu honen  
laguntzaileak:



# DE DYSTED SPILLEFOLK

## Danimarka



De Dysted Spillefolk taldeak bere ibilbidea 1975ean, garai hartan Dysted-en, Naestved-etik 15 Km-ra, bizi zen, Finn Alfred Larsen maisu ospetsuarekin hasi zuen. Finn Alfred-ek Dysted-eko eskola zaharra hartua zuen eta bertan bizi zen. Herrian musikari afizionatu asko etxean eserita beraientzat jotzen ariko zirela pentsatu zuen. Horrela, taldean elkartuta soinutresnak joaz ongi pasatzeko gogoia zuten musikariak asteen behin elkartzera gonbidatuz inguruko egunkarian iragarki bat jartzea erabaki zuen.

Bospasei pertsonarekin hasi zen, baina lehen gau haien ondoren orkestra garatzen eta handitzen joan da gaur egun 30 pertsonaz osatuta egonik.

Dysted-en zenbait urte eman ondoren, Finn Alfred Amager-era joan zen eta De Dysted Spillefolk bere musika lantzen jarraitzeko beste leku bat bilatu beharrean izan zen. Laguntza handia izan zen Holmegaard-eko udalak

egunean zehar eskolak emateko erabiltzen ziren eta gauez hutsak egoten ziren Fensmark-eko Nissen Hus-eko gela batzuk uztea. Hura izan zen orkestraren egoitza zenbait urtetan.

Nissen Hus-en parean Fensmark-eko dantzaleku zaharra zegoen, antzinako balkoi eta terrazak izateaz gain auditorio zabala duen eraikuntza ikusgarria. Hau salgai jarri zenean Holmegaard-eko udalak erosi zuen. Udalaren asmoa antzinako bilera-lekua kultur egitarau zabala eskainiko zuen kultur etxe bilakatzea zen. Geroztik, De Dysted Spillefolk bestelako taldeekin batera (herri dantzak, antzerkia, eta abar lantzen dituzten taldeak) bertan da.

De Dysted Spillefolk soinutresna batekin datorren edonori ongietorria emateko prest dagoen orkestra irekia da.

### EGITARAUA:

01. Her er spillemænd i staden
02. Bryllups polka
03. D-durs polska
04. Dejlig er sommernatten
05. Den gamle sekstur
06. Den lille Vendelbo
07. Dobbelt kvadrille, Sønderborg
08. En rundrejse
09. Ganglåt fra Appelbo
10. Godnat
11. Gårdebylåtan
12. Hans Christians cykel
13. Helges hopsa
14. Imellem Esbjerg og Fanø
15. Kaffepolka
16. La Bri
17. På livets vej
18. Rørhagen
19. Longsomma Gjarted - dance  
(Suediako maskaradako dantza)

